

goierri



Lazkaoko Altune baserriko María Jesús Mujika, errezil sagarren lehen saria. ARCAZKIA/AJ.

Mujika eta Txintxurretak izan dira garaile Beasaingo barazki eta sagar azokan

FRUITUARENTZAT URTE LEHORREGIA IZAN DA AURTENGOA, BASERRITARREN ESANETAN

Eguraldi epelak eraginda ondorio bitxiak izan dira baratzean: Gabirian baba berria jaso dute

ANE IRASORTZA

BEASAIN. Errezil sagar eta barazki lehiaketak izan ziren atzo Udazken Kulturala egitarauaren baitan. Udalak asteartero azokara etortzen diren baserritarren ekarpena sari-tu zuen ekimen horrekin, azken 19 urteotako usadioarekin jarraituz. Lau sari banatu zituzten guztira: atal bakoltzetik, bi. Errezil sagar-raren lehiaketan Lazkaoko Altu-

ne baserriko María Jesús Mujikak merezi izan zuen lehena eta Gazteluko Usurburu baserriko Axun Etxeberriak, bigarrena.

Barazki lehiaketan, berriz, beasaindar batek irabazi zuen lehen saria, Atari Eder etxeko María Rosario Txintxurretak. Bigarren saria Gabiriara joan zen. Agerre Berri baserriko María Etxezarretak eraman zuen.

Mujikak barazkiak eta sagarrak eraman zituen azokara. Errezilekin batera, hauekin egindako produktuekin apaindu zuen salmenta postua. Hala nola, konpota, krema eta sagardoarekin.

Errezil sagararentzat uda lehorra izan dela aurtengoa esan zuen Mujikak. "Gure etxean asko zaindu ditugu, bestela harrak joko zituen. Erori ere asko erori dira". Sagarra mota gehiago ere baditu etxean: 15 inguru guztira, baina errezila da preziatuena.

Atzo eguerdirako salmentak zer edo zer behera egin zuen, baina lehenengo orduetan bezero ugari izan zituen. "Oso azoka ona izaten dugu astero Beasainen", azpimarratu zuen lazkaotarrak.



María Rosario Txintxurreta, eskuinean, barazki artean. ARCAZKIA/AJ.

María Rosario Txintxurreta ezaguna da plazan, izan ere asteazketan izan ezik, beste egun guztietan jartzen baititu bere barazkiak salgai arkupean. "Ez dut ezer berezia prestatu gaurkorako, baina denetik ekarri dut gaur. Lehenengo izotzak heldu arte denetik dugu oraindik baratzean", esan zuen. Jendeak garaiko produktu berriak estimatzen dituela agertu zuen. "Orain indaba, brokoliak eta horrelakoak saltzen ditugu. Argiñanok errezeta berriren bat ematen duenean antzematen da. Aurreko astean emakume asko etorri zen berenjena eske".

BABA LEKAN Gabiriako María Etxezarretak barazkiez gain garaiko fruituekin aurkeztu zuen salmahaia. Kiwiak, sagarrak, kakiak, intxaurrak eta mizperak izan zituen.

Horiekin batera, garaitik kanpoko beste batzuk ere bazituen: baba berria lekan, landare eta guztia. "Nik ez dut inoiz ezagutu horrelakorik garai honetan. Amona bati galdetu diot eta berari ere ez zaiola tokatu esan di", esan zuen Etxezarretak. "Leka lehorren batetik ernatu da guk erein gabe". Gabiriarrak ez zuen saltzeko adina baba ekarri, bai ordea jendeak ikusteko. "Etxera iritsi bezain pronto behie emango diet baba", aitortu zuen.

Epaimahaia José Antonio Ibaibarriagak, Martin Irazustabarrenak eta José Antonio Iparragirrek osatu zuten.